

## Bilduk aldaketaren bidea ireki du

Pablo Barrio, Bilduko alkategaia izango da Lasarte-Oriako alkatea legealdi berrian

**B**ilduk haize fresko eta berria sartuko du hurrengo lau urteetan Lasarte-Oriako udal-txean. Larunbatean goizeko, 09:00etan ospatu zen inbestidura ekitaldian Pablo Barrio 9 bozkekin herriko alkate berria aukeratu izan zen. EAJko bi zinegotziek eta LOHPren beste bi bozkei esker, 2011ko ekainaren 11a egun historikoa bihurtu da lasarteoriarren oroimenean.

### Punntual eta azkarra

Inbestidura ekitaldia inongo atzerapenik gabe hitzartutako orduan hasi zen, hau da goizeko 09:00etan. Ordu erdi lehenago udaltekoko pleno aretoa jendez gainezka zegoen aldaketa etorri oteko zeneren ustetan. Ordu horretan ere ikus zitekeen jada Estitxu Alkorta (EAJ), Ana Isabel Prieto (LOHP) eta Pablo Barrioren (Bildu) artean sintonia ona zegoela. Irribarreak ziren nagusi hiru zinegotzi hauen artean, gainerako publikoan urduritasuna nabaria zen.

Jesus Maria Zaballos, PSE-EEko alkategaia, bere alderdi-

ko zinegotzi eta Jesus Eguiren Euskadiko PSE-EE buruzagia eta Iñaki Arriola, Gipuzkoako PSE-EEko buruarekin egin zuen agerraldia ekitaldia hastear zegoela.

### Urduritasuna nabari

Idazkariak inbestidura ekitaldiari hasiera eman eta adin mahaia eratu zuten. Marisa Zubiri (PSE-EE) zinegotzi zaharrenak eta Taxio Arrizabalaga (Bildu) gazteenak osatu zuten. Ondoren gainerako zinegotziak euren karguari zin egin eta euren eserlekuetan eseri ziren.

Alkatea aukeratzeko prozesuari jarraiki hautagaiak aurkezteko momentua: Jesus Maria Zaballos (PSE-EE) eta Pablo Barrio (Bildu). Bozkaketei paso eman eta boto-zenbaketari ekin zitzaion. Bilduk 9 bozkara iritsi orduko, pleno aretoan urduritasunak alboratu eta txalo eta emozioari eman zitzaion paso. Jende asko emozionatu zen, 25 urteren ostean Lasarte-Oriako alkatearen aldaketa emateko gogoaz baitzuten. Eta honi esker, Pablo Barrio Lasarte-



Sozialismotik, abertsaleatunera egin du Lasarte-Oriako udalak maiatzaren 22an ospatutako hauteskundearen emaitzei esker.

Oriako alkate berrian bilkatzaren zentzuz.

### Bildurentzat gehiago

Bilduk bere bost zinegotzietan gain, EAJko bi bozka eta LOHPren beste bi eskuratu zituzten, guztira 9 boto, beraz babesa alkatearen gehiengo eskuratzeko. PSE-EE bere aldetik aldiz, 8 bozkekin geratu zen. Hau da bere alderdiko 7 zinegotzietan bozka gehi alderdi popularrekoa. Asteazken zehar egondako zurrumurruak uxatu eta azkenean aldaketarako apostua egin zuten EAJk eta LOHPk.

### Aldaketarako garaia

Herria eratu zeneko 25 urte ospatu ziren otsailean. 25 urte PSE-EE herriko alkatearen zegoenetik. Mende laurden bateko botereari eman zitzaion amaiera larunbatean. Herriak aldaketarako apostua egin nahi izan du eta alderdi politikoek nahi hori errespetatu dute. Garai berriak iritsi dira Lasarte-Oriara.

### Koalizioko gobernua

Bildu, LOHP eta EAJ izan dira koalizioko gobernuaren kideak. Lasarte-Oriako udalaren gobernu berria osatu da.

governua Bildu eta EAJren artean antolatuko da. LOHPk negoziaketetan argi utzi zien Bildukoei ez zituztela kargurik onartuko eta eurak oposizioaren bidetik lan egiten jarraituko zutelako.

### Jai giroa

Pleno goiz izan bazen ere, jende ugari bildu zen udalean eta behin amaituta guztiak kalera atera eta ospatzeari ekin zioten.

Trikitixak, txaparta, txanpain botilak eta brindisak non-nahi izan ziren, aro berri honi gogoz ekin zioten. •



Pablo Barrio,  
Lasarte-Oriako  
alkate berriarekin  
aritu gara  
solasean /4

### KIROLA /2

Ormazabal eta  
Galardi herriko  
atletak  
Gipuzkoako  
txapeldunak  
bihurtu dira



Dantza eta jai  
giroa atzo,  
igandean Dantzari  
Txikiaren XXIII.  
edizioan /6



# txintxarro

erretegia

Etorri, probatu  
eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)  
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

## Berria!

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak  
Bataioak  
Familiarteko bazkariak  
.....

OSTADAR K.F.

## Futbol Eskolako izena ematea gaur irekitzen da

Ostadar K.F. jakinarazten du, gaur Futbol Eskolan izena emateko epea irekiko dela.

Futbol Eskolan hurrengo denboraldian egon nahi duen haurrak baldintza hauek bete behar ditu: Buruntzaldeko bazkidea izatea; 2003, 2002 edo 2001. urtean jaiotakoa izatea edo Lasarte-Orian bizitzea.

Eskolako arduradunek iaz Futbol Eskolan egon ziren neska eta mutilak eta Ostadarreko bazkideek lehenasuna dutela jakinarazi nahi dute. Era berean, plazak mugatuak direla ere azpimarratzen dute.

Inskripzioa ekainaren 24a bitartean egin ahalko da, Ostadarreko egoitzan, 18:00etatik 20:00tara. •

BURUNTZ AZPI ELKARTEA

## Compak-Sporting txapelketa antolatu da

Buruntz Azpi elkarteak Compak-Sporting txapelketa antolatu du ekainaren 19an, Oiarzungo Arkaleko zelaian.

Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman behar du elkartearen egoitzan, Basaundi bailara 9an, edo telefonoz 943 370 685 zenbakira deituta, ekainaren 18a baino lehen. •

BURUNTZALDEA IKT

## Igeriketa taldeak aurrematrikula ireki du

Buruntzaldea IKT igeriketa taldea hurrengo denboraldia prestaz hasi da. Horregatik, igeriketa egin nahi duten haurrek ekaina eta uztaila bitartean aurreinskripzioa egin dezaketela jakinarazi du taldeak.

Honetarako, Lasarte-Oriako igerilekuan Borja-gatik galdetu, astelehenerik ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara edo 696 506 632 telefonora deitu behar dute interesatuek.

Honetaz gain, igeriketa taldeko lagunak hurrengo denboraldiko entrenamenduen ordutegiak jakinarazi dituzte: 2004 eta 2005ean jaiotako haurrek, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 18:45ak bitartean; 2003an jaiotako, astearte eta ostegunetan, 18:45etatik 19:30ak bitartean; 2002 urteko gazteek, astelehen, asteazken eta ostiralean, 18:30etatik 19:30ak bitartean eta 2001 eta 2000 urtean jaiotako, astelehen, asteazken eta ostiralean, 18:00etatik 19:30ak bitartean. Entrenamenduak irailaren 5ean, astelehenean, hasiko dira.

Era berean, taldeko arduradunek azpimarratu dute, 2005 urteko haurra onartua izateko taldean anai edo arreba bat izan behar duela. •



Buruntzaldea IKTk aurrez izena emateko aukera eskaintzen du.Arg.:Buruntzaldea IKT

# Ormazabal eta Galardi atletak Gipuzkoako txapeldun

Rodriguez Euskadiko Eskolarteko Jokoetan garaile izan zen

**M**ailla desberdinetako Gipuzkoako txapelketak izan dira azken asteetan eta LOKEko eta herriko atletak bertan egon dira.

Horietatik azpimarratzekoak dira LOKEko Gaizka Ormazabalek junior mailako 220 metro proban eta Ane Galardik senior mailako luzera jauzian eskuratutako urrezko dominek.

Bi txapeldun berri hauetaz gain, taldeko Irati Larrañagak junior mailako jauzi hirukoitzean bigarren postua eskuratu zuen eta Ane Galardi berak senior mailako brontzezko postua.

Era berean, Jose Ramon Latorre herritarrek, 200 metroetako bigarren postua eskuratu zuen senior mailan.

### Eskolarteko Jokoak

Bestalde, Euskadiko Eskolarte-



Denboraldi ona egiten ari dira LOKEko Larrañaga, Ormazabal eta Galardi gazteak.

ko Jokoetan Gipuzkoako selekzioaren izenean parte hartu zuen Itoitz Rodriguezek 100 metroetako urrezko domina eskuratu zuen

Bestalde, Landaberriko Ane Galardik, luzera jauzian eta Oihana Igarrirek pisu jaurkitetan zilarrezko domina eskuratu zuten eta Eneritz Bustok, altue-

ran laugarren postua.

Halabaina, 4x80 nesken erreleboa deskalifikatua izan zen. Nahiz eta helmugara lehenengo iritsi, errelebo bat lekuz kanpo egin eta epaileek taldea kaleratu zuten.

Hala ere, Landaberriko neskek eskolarteko hirugarren postua eskuratu zuten. •

## Giroko Porrako sariak banatu ziren

**G**iroa bukatu da eta horrekin batera, Ostadar Kirol fundazioak egiten duen porraren sari banaketa egin zen ostiralean.

Ainhoa tabernan egin zen sari banaketa. Hau izan baita puntu gehien lortu dituen taberna eta Porrako antolatzailerak jabeari, Eduri eman zioten saria.

### Sarituak

*Mourinho: Zergatik eta Txamano* izan dira Giroko porra-ko bi lehenengo postuak eskuratu dituztenak.

Honetaz gain, zozketatutako urdaiazpikoak ere banatu ziren, ez ziren guztiak agertu, baina hauek izan dira zorte-



Porrako sarituak kontent azaldu ziren, ordainsaria edo urdaiazpikoekin.

dunak: *Tor-Tor, Aizpe, Ziriondo, Sof.Oskar, Kaikupatxi, Sof.Oskar* eta *Ke Torre otro*.

Baina zorte ona dutenek

ez ezik, ohikoa denez porra-ko azkenak ere, Bulgao-Palomo-k izan zuen bere saria, urdaiazpikoa. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udaberri elkartearen egin ziren sukaldaritza saioek harrera ona izan zuten eta euskarazko kasuan, ikusleetako batzu lan egin zuten.

## Aste Berdearen irakurketa positiboa egin du Udalak

Ekintzen artean, bigarren eskuko azokak eta sukaldaritza jardunaldiek harrera ona izan dute

Lehenengo astean zehar, herritarrek kontsumoa murriztearen garrantziaz ohartzeko hainbat ekintza burutu dira Lasarte-Orian: bigarren eskuko azoka, hitzaldia eta sukaldaritza jardunaldiak.

Hauetaz guztiak, Aste Berdea 2011 ekimenaren barruan egin dira eta Udalak ekintzen irakurketa positiboa egin du.

### Bigarren eskuko azoka

Larunbatean, ekainaren 4ean, Dorre parkean egin zen Bigarren eskuko azokak harrera ona izan zuela adierazi du Udalak.

Eskaini datuen arabera, azokan 6 elkarte, 30 herritarrek eta familia eta haien haurrek osatutako talde berezi batek postua jarri zuten.

Gainera, eguraldi onak bultzatuta, azokara herritar ugari hurbildu zirela eta salmenta kopurua ona izan zela azpimarratzen du.



Elikadura eta kontsumoari buruzko hitzaldia egon zen Manuel Lekuona kultur etxean.

### Hitzaldia

Asteartean, aldiz, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzako lagun batek eguneko kontsumo gizartea aztertu eta kontsumoa murriztu eta aurrezteko aholkuak eskaini zituen.

Duela hamar urteko eta eguneko konparaketa egin zuen. "Lehen beharrezko gauzak kontsumitzen ziren, orain gauza gehiago izateko," adierazi zuen.

Kontsumo honek planetan eta pertsonengan dituen ondorioez ere mintzo zen, kontsumo sostengaezina, zorrak izatea eta gainelikadura.

Eta azken puntu honi heldu zion jarraian. Elikadura behar nagusietako bat da. Baina lehen, oinarriko elikagaiak kontsumitzen ziren, gaur egun ez da hain zaila edozein jaki eskuratzea.

Hala baina, herritar guztiek beharrezkoa duten elikadura lortzeko errekurtsioen

ustiapen handia sortzen duela gogorarazi zuen.

Hau guztia hein batean konpontzeko, kontsumoa murriztu eta aurrezteko zerbait ideia eskaini zituen: zerrenda egin, erosketa zerbait jan ostean egitea, beharrezkoak ditugun gauzak erosi, produktuek informazioa eta kalitate-prezioa begiratu, etab.

### Sukaldaritza jardunaldiak

Bestalde, asteazken eta ostegunean, sukaldaritza jardunaldian izan ziren Udaberri elkartearen.

Euskarazko saioan, Juan Luis Eizmendi Goiegiko sukaldariak janari soberakinekin egin ahal diren hiru errezeta eskaini zituen: bakailao ajoarriero budina, babarrun entsalada eta arroz bola frijituak.

Honetaz gain, hainbat elikagaiarekin egin daitezkeen errezetaz ere aipatu zituen, hala nola, arrain-bolak edo ogiarekin edo kruasanarekin egindako budinak.

Ostegunean, berriz, Lurra XXI jatetxeko Jose Ramon Garzarainen txanda izan zen.

Honek oilasko hostopila eta espinaka-kroketak egin zituen.

Baina errezetaz gain, Lurra XXIeko sukaldariak aholkuak eskaini zituen elikagaien erosketa eta kontserbazioari buruzkoak, esate baterako.

Bi saio hauetan 35 bat herritarrek parte hartu zuten eta hainbat galdera egin zizkieten herriko jatetxeetako sukaldariak. •

### LANAK

## Ostegunean Kalbario bidea itxiko dute

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazten du, Loidi-Barren eremuko P-6 partzelako lanak direla eta, Kalbario bidea ibilgailuentzako itxitako dutela.

Kale mozketa ekainaren 16ko 6:00etatik ekainaren 17ko 18:00ak bitartean izango da.

Lasarte-Oriako Udaleko alkateak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

### SAN PEDROAK 2011

## Kamisetak tindatzeko saioak

LH3 mailatik gorako gazteek, hurrengo astean, ekainaren 15ean eta 16an, San Pedro eguneko koadrila bazkarirako kamisetak atontzeko saioak izango dituzte.

Landaberriko ikastolako Garaikoetxea eraikinean asteazkenean eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Sasoetako eraikinean, ostegunean izango dira saioak. Arratsaldean, 15:30etik aurrera gaztetxoek kamisetak tindatu ahalgo dituzte eta haien gustura apaindu. •

### EUSKARA

## Euskara ikasi dutenentzat diru laguntzak

Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazten du 2010/2011 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoriarrek beka jasozko aukera dutela.

Horretarako, interesatuek subentzio-eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan.

Diru laguntza eskaera hau ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak.

Eskaerak betiere agiri guztiekin aurkeztu beharko dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke, 943 376 184 telefono zenbakian edo Udalaren web-orrian kontsultatu. •



## Koadrilen arteko VIII. futbol eta saskibaloitxo txapelketak jokoan dira

Maiatzean hasi eta ekainaren 24an, San Joan egunean, bukatuko dira Lasarte-Oriako kale hezitzaileek antolatutako koadrilen arteko futbol eta saskibaloitxo txapelketak.

Ekintza honetan 10 eta 18 urte bitarteko herriko gaztetxoek hartzen dute parte, 230 gazte orotara.

Partidak jardunalditan antolatu dira taldeen ezaugarri, baldintza eta beharren arabera. Sasoeta ikastetxeko kirol-instalazioetan ostegunetan 18:00tik 20:00era eta ostiraletan 17:30tik 20:30ak bitartean jokatzen dira.

Azkenik, multzo bakoitzeko saikapeneko lehenengo bi

taldeak helduko dira, ekainaren 24an 16:00etatik 20:00etara Udak Kirol Kiroldegian burutuko diren finalerara.

### Eskerrak

Bide batez, kale hezitzaileek eskerrak eman nahi dizkiete txapelketan parte hartu duten edota bertan ikusten, animatzen nahiz laguntzen egon diren gazte guztiei, baita guraso eta ahaideei ere.

Halaber, herriko Landaberri ikastolari eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeari, udal txapelketako Kirol, Gazteria eta Jaien Sailari eskerrak eman nahi dizkiete beraien borondate, laguntza eta prestutasunagatik. •

Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea

# “Egun historikoa izan da gaurkoa”

■ Bildu, EAJ eta LOHPren arteko akordioak Bilduko hautagaia Pablo Barrio jarri du alkate  
 ■ 25 urteren ostean alderdi sozialista udal gobernua utzi eta oposiziorako bidea hartu du

**Maiatzaren 22ko hauteskunde emaitzak ikusita Lasarte-Oriako Udalean bide berria ireki zen. Bi asteko bileren ondoren, aldaketa hori larunbatean gauzatu zen udaletxe-ko pleno aretoan goizeko 09:00etan ospatutako inbestidura ekitaldian. Bildu, EAJ eta LOHP, Bilduren alkategai zen Pablo Barriori botoa eman eta alkate bilakatu zuten. 25 urtetan Lasarte-Oriako gobernuan PSE-EEk izan duen hegemoniaren ostean garai berriei ireki zaie bidea.**

ITXASO MORENO

Ekainaren 11tik aurrera garai berri bati eman zaio hasiera Lasarte-Orian. 25 urteko gobernu sozialista baten ostean gobernu abertzale batek agindu eta antolatuko du herria. Pablo Barrio idazlea eta Bilduko alkategaia, Lasarte-Oriako alkate berria bilakatu da EAJ eta LOHPren babesarekin.

## Zorionak! Nola bizi duzu gaurko eguna ?

Garbi dago gaurkoa egun historikoa dela. Maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren sortu den egoera historikoa izan da, orain arte Lasarte-Orian eman ez dena, ez da inoiz gertatu eta aprobetxatzeko zela uste genuen. Momentu honetan kale egin izan bagenu, jendeak ez luke ulertuko, eta egia esan guk ere ez. Hala ere hasieratik zalantzak egon dira, eta azken momentura arte mantendu dira

Aldaketa nahia oso nabarmena zen herrian. Lasarte-Orian PSE-EE azken 25 urte hauetan izan duen jarrera oso itxia izan da, bere esparruko gauza bat bezala erabili du udaletxea. Ez dute ez herriarekin ez oposizioan zeuden beste alderdiekin harremanik ezta lana egin izan nahi. Eta gaur, nolabaiteko ordaina etorri zaie. Izan ere, gobernuan jarraitu ahal izateko lagunak behar zituzten eta euren jarreraren ondorioz ez dituzte aurkitu.

## Bildu, EAJ eta LOHPren akordioa zirrara ikaragarria piztu du herritarren artean.

Kalean ilusio handia nabaritzen zen. Nonbaitera joan behar nintzenean, etxetik atera eta distantziak oso luzeak ez baziren arren espazioan, denboran bai. Jendeak gelditu egiten zidan “Zorionak, lortu duzue eta orain bidea daukazue aldaketa hori egiteko, egin ezazue” esanez. Gainera hitz hauek ez dira bakarrik gure boto emaleen aldetik etorri, beste alderdien

boto emaleen aldetik eta are gehiago botoa eman ez duten horietatik etorri zait. Jendearen aldetik aldaketarako ilusio handia zegoen. Gainera inpresio hau ez dugu bakarrik guk, Bildukoek jasoa, EAJ eta Plataformako kideek ere aldaketa honen nahia eta beharra sumatu dute herriko giroan.

## Gaur goizean jende asko hurbildu da pleno aretora. Goizeko 08:30ean jendez gainezka zegoen.

Momentu berezia izan da. Guk ordurako bagenekien zer gertatuko zen, beraz nahiko lasai geunden. Baina han bildutako askok ez zekiten gure erabakiaren berri. Hala ere, guk akordioaren berri izanik ere, gertatzen den arte... Ikaragarria izan da gaur goizekoa, historikoa eta lasarteoriatarrek espero zutena. Duela lau aste hau esan baziguten, ez genuen sinetsiko.

## Maiatzaren 22an ospatutako hauteskundeetan, burutik pasa al zitzaizuen hainbeste-ko errepresentazioa lortzea?

Bosgarren zinegotzia eskuratzeko posible ikusten genuen, baina halaber zaila ere. Kampainan zehar ere zalantza ugari bizi izan ditugu, ez genekien aurkezteko aukera izango genuen edo ilegalizatu egingo gintuzten. Beraz, momentu horietan alkatetzarekin amestea urruneko gauza zen.

Gure asmoa hasieran oposizioan egotea zen eta bertatik lan polita egitea. Baina klaro, gero emaitzak ikusita etorkizun berria ireki zitekeela ikusi genuen eta hori aprobetxatu beharra zegoela. Gainera intentzio hau ez zen

gurea bakarrik, EAJk ere hasieratik oso aldeko jarrera hartu zuen aldaketaren bide-tik ekiteko.

## Eta nola ikusten duzu zuk zure burua alkate bezala?

Bilduko hautagai bezala aurkeztu nintzenean ez zitzaidan burutik pasa alkate izateko aukera izango nuenik. Duela bi hilabete esan bazidaten, ez nuen sinetsiko. Baina arduraz eta pozik hartu dut alkate kargua. Politikoki aukera ikaragarria izan da.

Hemendik aurrera lana edukiko dugula argi daukagu eta ez lan erraza gainera. Kontuan izan behar da gu politikan hasi berriak garela, guretzat mundu honetan ego-tea sorpresa izan da. Orain mundu hau ezagutu behar dugu.

Egun hauetan politikaren moduak ezagutzen hasi gara, negoziaketekin adibidez, gu ez ginen adituak eta gauza potoloa da. Negoziaketetan ikasi dugu eta orain Udalean ikastea tokatzen zaigu.

Gaur disfrutatzeko eguna izango da, bihar deskantsatza eta astelehenean gogor sartuko gara lanean. Udalak dituen baliabideak aztertzea izango da gure lana eta bene-tako egoera zein den jakitea.

## Herria eratu zenetik PSE-EE egon da gobernuan, nagusitasuna izan du.

Hori da eta gainera orain krisi egoera latz batean murgilduak gaude eta nire ustez luze joko duen egoera izango da. Beraz, gure alkatetza aldaketaren sintoma bat da eta seguru-erik aldaketa hauek jarraituko dute. Badakigu orain jaso berri dugun paper honetan bizitzeko tokatuko zaigun egoera latza izango dela, izan ere, nire ustez Udalean ikaragarriko zuloa aurkituko dugu. Herrian egiteko gauza asko eta behar handiak aurkituko ditugu, baina hori aurrera ateratzeko diru gutxi.

## Aldaketarik pentsatuta duzue?

Batez ere planteamendu bezala eta diruaren kontua eraginik izango ez duena, jarrera aldaketa izango da. Udala kudeatzeko planteamendu berri bat jarriko dugu martxan.

Orain arte PSE-EEk bere eremua izan du, gehiengo osoarekin eta beraz nahi izan duen guztia egin du bai herriarekiko eta baita Udala-  
r e n

barruan ere. Hori argi eta garbi, aldatu egingo da. Bai Bildurentzat, bai EAJrentzat eta bai LOHPrentzat, hori aldatu beharra dago eta udaletxe barruko harremanetan eta herriarekiko harremanetan ezinbestekoa izango da.

Herrian talde asko daude eta arlo ezberdinetakoak. Arlo batzuetan gainera oso talde aktiboak ditugu eta Lasarte-Oria hauetan eredugarria da. Mugimendu handiko herria da gurea bai kultura, kirola... mailan. Beraz, hasieratik esaten dugu talde horiei Udalean hartzen diren erabakietan parte hartzeko eta euren planteamenduak luzatzeko bide librea utziko diegula.

## Herriarekin herria eratu

Hori da. Azken aldi honetan herri parte-hartzailearen ideia oso zabaldua dago. Mezu hau gehiegi zabaltzen denean zentzua galdu dezake, baina argi utzi nahi dugu gure asmoa hori benetan gauzatzeko dela. Gobernatze-ko modu hau ez dago oso garatua, beraz erabiltzen den herrietako esperientziak ikusi eta baliagarriak diren teknikak ekarriko ditugu edo gureru moldatu.

## Koalizioko gobernu izango da?

EAJ eta Bilduren arteko koalizioko gobernu izango da. LOHPkoekin bildu ginenean planteamendu bat egin ziguten hasieratik, eurak aldaketaren aldeko apostua egingo zutela baina gobernuan parte hartu gabe. Lanean eta elkar lanerako prest daudela baina ez gobernu batzordeko kide izateko. Beraz, gobernu batzordea EAJ eta gure artean osatuko da. Eta hauteskundeetan eskuratutako zinegotzien erlazioa mantenduz osatuko da.

## Aldaketa nabarmena beraz, hitza izango da.

Hori da. Hots ezberdinek izango dute tokia. Udaletxea leku ireki bat bezala ulertzera eman nahi dugu. Aire berria, aire freskoa sartuz.

Honetaz gain, aldaketa puntual eta konkretuak egongo dira, garrantzia handikoak, baina hauek aurrera begira egin behar dira. Momentuz, burua kokatzea tokatzen zaigu eta herriaren alde, aurrera egitea. •





LarrialdiAIAIAIAK... Mertxe Rodriguezen taldeak ederki girotu zuen publikoa antzeztu zuten musikalarekin.

Solaskide taldekoek itxi zuten Antzerki eta Dantza astea, Lan bikaina egin zuten Andrearen urtea antzezlanean.

## Antzerki eta dantza aste koloretsua amaitu da

Lasarte-Oria artistaz beteta dagoela argi geratu da berriro ere IX. Antzerki eta Dantza Astean ikusi den parte hartze zabalarean. Ume ugari pasa dira Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzatik urtean zehar ikasitako guztia egunero bildutako ikuslego zabalari eskainteko. Asteburu honetan helduen txanda izan da. Ostiral gauean *LarrialdiAIAIAIAK...* ikuskizuna ikusteko parada egon zen eta *Bizitzaren Zirkoa*, *Cromtech*, *Andrearen urtea* eta *20 urte hamaika bertute* larunbat gauean.



**E**rabat errotuta dago Lasarte-Orian Antzerki eta Dantza astea eta horren isla, ospatutako bi aste hauek emanaldietan Manuel Lekuona kultur etxean biltzea lortu duten jendetza. Harrobi ona dago herrian, urtetik urtera partaidetza igoz.

Antzerki eta Dantza Asteo IX. edizioak amaiera arrakastatsua izan zuen. Ostiralean Mertxe Rodriguezen taldeak berriro harritu zuen publikoa. Aurreko urtean *A ze koadrila amonak eta hilak!* laburme-traia ekarri zuen eta aurten musikala. Ordu beteko saio ikusgarria eskaini zuten eta publikoak ederki pasa zuen.

### Astea borobiltzen

Larunbateko ekitaldiekin eman zitzaion amaiera Asteari. Arratsaldeko 20:00etan hasita Kukukako gazteek *Bizitzaren zirkoa* eskaini zuten.

Ondoren Añorgako antzerki taldeak *Cromtech* obra antzeztu zuen. Ikusleak igo zituzten eta aktoreek beraien erdian egin zuten bere lana.

### Goxoki muxuak

Bi emanaldi hauen ostean Jalguneren San Pedro Jaien bertso berezia berriro ikusteko aukera egon zen. Gazte hauek alaitasunez bete zuten kultur etxea, eta euren saioari amaiera goxoa emateko *goxoki ezpainak* banatu zituzten

bertaratutako publikoaren artean.

Antzerki eta Dantza Asteari amaiera emateko Solaskideko taldekoek *Andrearen urtea* lana taularatu zuten.

Lan bikaina egin zuten Solaskideko partaideek kontutan izan da, ia denak euskaldun berriak zirela eta euskara ikasten ari direla. Beraien lana amaitu zutenean, merezitako txalo zaparrada jaso zuten ikusleengandik.

### Hurrengo urte arte

Guzti honekin amaiera eman zitzaion IX. Antzerki eta Dantza Aste koloretsuari, X. edizioaren zain geratzen gara. •



Jalguneko kideek txalo zaparrada ugari jaso zituzten, eta euren emanaldia amaitzeko goxoki muxuak banatu zituzten kultur etxeko publikoaren artean.

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateaa



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

**ELEKTRIZITATEA**  
**ARREGUI**

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

# Axular-eko danborrada Londresen

Oihana eta Eider Amonarraiz, Mila Ugarteburu, Alberto Luis eta David Franco herritarrek parte hartu zuten ekainaren 4ko "Regent Street, a taste of Spain" izeneko jaialdi erraldoian

Donostiako Axular ikastolako danborrada osatzen duten ikasle ohi, hauen guraso eta irakasleek Londresen ekainaren 4an larunbatean burutu zen, "Regent Street, a taste of Spain" jaialdian parte hartu zuten. Donostiako danbor soinuak eraman zituen 68 kideko taldean bost ziren lasarteoriatarrak, David Franco eta familia bereko lau herritar, Oihana Amonarraiz, ama, ahizpa eta senarra.

**A**xular ikastolako danborradako kideek, San Sebastian egunean danborra jotzeaz gain, zenbait irteera egin ohi dituzte tarteka eta aurreko astean orain arte egin duten bidaiarik luzeena eta interesgarriena egin dute, Londres erdira eraman baitzituzten Sarriegiren doinuak.

Donostiatik kanpo, Euskal Herrian jo izan dute behin edo behin, esaterako Mendigorrian duela gutxi eta Madril-en izan ziren iaz.

Orain Londresen turismoa promozionatzeko eta bultzatzeko egiten den jaialdi erraldoi batean, "Regent Street, a taste of Spain" izenekoan parte hartzeko gonbidapena jaso eta 68 lagun bidaiara eta ostata ordaindu diete antolatzaileek.

Seigarren jaialdia izan da aurtengoa eta orain arte euskal trikitilari eta dantzariak joan baziren ere, aurtan danborrada oso bat gonbidatu dute, zerbait berezia eskaini nahi zutelako eta ederki baliatu dute Axularko danborradako partaideek.

## Donostiatik Londresera

2 urtetik 18 urtera bitarteko haurrek ikasten dute Donostiako Axular ikastetxean eta bertako Oihana Amonarraiz irakasleak eman digu bidaiaren berri.

Alberto Luis senarra, Eider Amonarraiz ahizpa eta Mila Ugarteburu ama ere danborradako partaide dira eta lauak ibili dira Britainia Handiko hiriburuan.

Ekainaren 4an larunbatean abiatu ziren hegazkinez, eta astelehenean itzuli ziren "oso ondo" pasa eta gero.



Axular ikastolako 68 laguneko taldea joan zen Londresera danborra jotzera. Lehenengo ilaran eskumako aldean David Franco ageari da.

Autonomi erkidego bakoitzeko kultur talde bat edo bi joan dira: hemendik, Axularko danborrada eta Bilbo inguruko "We are Standard" Londresen oso ezaguna zen rock taldea.

## Egun osoko festa

Danborradak, eguerdian hasi eta arratsaldeko 19:00-20:00ak arte ordu jo zuen piezaren bat. "Bost mila lagun baziren ikusten, kristoren giroa zen" kontatu digu Oihana Amonarraizek.

Londresko City erdi erdian kalea itxi eta ikuskizun bikaina eskaini zuten, kirol erakustaldiak, rock kontzertuak, kultur ikuskizunak, denetarik egon zen.

Paella, urdaiazpikoa, gazpatxoak, txurroak eta beste dastatzeko aukera eskaini zen eta Menorcatik joandako talde batek zaldiekin erakustaldia egin zuen.

## Jai hasteko, danborrak

Gainera, Donostiako taldea izan zen ekitaldi guztiei hasiera eman ziena larunbat eguerdian. Oihana Amonarraizek kontatu digunez, "izugarria izan zen hori, horrelako ekitaldi garrantzitsuari sarrera ematea... Gero



Oihana Amonarraiz, Alberto Luis, Eider Amonarraiz eta Mila Ugarteburu Londresko polizierekin.

orduro 15 minutuko saio bat egiten genuen. Euskadik jarri zuen stand-aren atzeko kaletik ateratzen ginen, stand-aren aurrean jarri eta bizpahiru pieza jo. Bien bitartean ikusle denak argazkiak atera eta atera ibili ziren".

## Flash-en helburu

"Hoteletik atera ginetik ez dakit zenbat argazki atera zizkiguten... beraientzako dena zen berria. Dena galdetzen ziguten, zeintzuk zarete, nondik zatozte, edota zergatik jotzen duzue. Ez zuten sekula

horrelakorik ikusi, eta ikaragarria zen beraientzako" kontatu digu aste honetan Oihana Amonarraizek.

Danborra jotzeaz gain, Londres hiriburuko erdigunea ikusteko aukera izan dute Axularko bidaiariak asteburuan. •

## Egunero

### Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN, Vanessa Gimeno diseinatutako kamisetak ikusgai eta salgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



## Ostirala, 17

### Kontzertua

YEMAMAHREN emanaldia. Musika Brasildarra, Bossa, Pop... gozatzeko aukera. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



OSTIRALEAN, HILAREN 17AN, KULTURETXEKO KAFETEGIAN  
20:00ETAN, DOAN

## Jokin Goenaga akordeoi jolea kulturetxean

JOKIN GOENAGA akordeoi jolearen emanaldia Xpression eta Udalak duten hitzarmenaren barruan.

Akordeoi jole lasarteoriatarra 8 urterekin hasi zen akordeoia ikasten Jose Antonio Mercero eta Jose Mari Oyarzabalekin Lasarte-Oriako Santa Zezilia eskolan. Aurrerago Donostiako kontzerbatorioan bere ikasketak osatu zituen eta Goi mailako Akordeoi irakasle titulua atera zuen.

96an erreperitorio klasiko utzi eta bera hasi zen soinuak piezak sortzen eta bere erreperitorio propioak sortu zuen.

Orain hiru urte Pentsatzen diska grabatu zuen, bere sorkuntza musikaren adierazle.

### Kontzertua

IBON CASAS, musikari Hernaniarraren emanaldia. Abend kafe-antzokian, gaueko 12etatik aurrera.



## Osteguna, 30

### Kontzertua

AUPA QUARTET, Bartzelonatik etorritako soka laukotearen emanaldia. Musikarien artean, Asier Suberbiola lasarteoriatarra dugu Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.



## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

## Oharrak

### Sorgin Dantzako entsaioak hasi dira

San Pedro egunean Oriako Sorgin Dantzan atera nahi dutenek bihurtu aurrera, entseguak dituzte, Landaberri BHko patioan astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita.

Era berean, gogorazten da, haurren zortzikotean joan nahi duten urteetan 1997, 1998 eta 1999. jaiotako gaztetxoek kultur etxeko Gazte informazioan izena eman behar dutela.

### Arcachonera joateko 3. Autobusa

Kuadrillategi eta Gazte klubeko gaztetxoek irteera egingo dute ekainaren 19an Arcachonera uretako parkera eta izena eman duten haur kopurua ikusirik, Ttakunek beste autobus bat jartzea erabaki du. Erreserban zeuden gazteek haien lekua ziurtatzeko Ttakunera hurbildu behar dute eta 30 euroak ordaindu, baita oraindik izena eman ez dutenek ere, hirugarren autobus horretako lekuak bete arte.

### Zabaletako jaien zozketa

Zabaleta Auzolan elkarteak jaietan Goiegi jaietean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako afaria 7274 zenbakia egokitu zaio. Zenbakia duen pertsonak auzoko elkarte kideekin harremanetan jarzea besterik ez du, txartelean kontakturako telefono zenbakia jartzen du.

Honetaz gain Azpeitiko kilometroaren alde egindako zozketan Iñaki Zendoia, Rosik eskuratu du saski eder bat. 2011ko jaiak behin amaituta, Zabaleta Auzolan elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete auzoko jaietan parte hartu eta lagundu duten guztiei (borondatez lan eginez, diruz, antolatzen...).

### Maria Auxiliadora elkartearen txangoa

Maria Auxiliadora elkarteak txango bat antolatu du ekainaren 19rako, igandea, Santanderrera joateko. Interesaturik daudenak deitu dezatela honeko telefonoetara: 943 360042 eta 943 363675.

### San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko entsaioak

Erketz Dantza Taldeak antolatu, ekainaren 16an arratsaldeko 19:00etan Zumaburuko eskolako gimnasioan, San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko entsaioak egingo dira.

Entsaioen iraupena ordubetekoa izango da, beraz 19:00etatik 20:00etara izango dira. Animatu zaitezte parte-hartzera!

### Igerilekua itxia eta ur berorik ez

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak ohar honen bidez jakinarazi nahi du, geldialdi tekniko dela eta, gaur, astelehena ekainaren 13a, 10:30etik 14:00etara kiroldegian ez dela ur berorik egongo.

Era berean, denbora tarte horretan udal igerilekua publikoarentzat itxita egongo da.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko

aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikorak bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldirikarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Talde guztiak eta bildutako publikoa Dantzari Txiki egunari amaiera emateko elkarrekin fandango eta kalejira dantzatu zuten.



Andatzatik abiatu ziren dantzari txikiak goizeko alardeari ekiteko.

## Giro ederra bizi zen Dantzari Txikin

A tzo XXIII. Dantzari txiki eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Faltzesko *Makaia*, Zangoztzako *Rocamador D.T.* eta Oretetako *Ereintza Dantza* taldeak etorri ziren gonbidatuta eta herriko Landaberrikoek eta Kukurakoekek ere hartu zuten parte.

### Dantzari txiki trebeak

Goizeko 10:30ean bildu ziren denak Andatza plazan eta 11:00etan abiatu ziren Lasarte-Oriako auzoetako kaleetatik barrena musikarekin herria girotzen, talde bakoitza ibilbide desberdinetik. Etenaldiak ere egin zituzten euren dantzak bildutakoei erakusteko. Jende asko gerturatu zen haurrak dantzan ikustera.

### Energiak berreskuratzen

Behin bazkalduta eta bapojan ondoren, energia ugarirekin berriro bildu ziren jaialdiari jarraipena emateko. 17:00ak aldera eman zitzaion hasiera arratsaldeko saioari.

Talde bakoitzak prestatutako emanaldia eskaini aurretik, talde guztiak agurra dantzatu zieten bertaratutakoei. Dantza askoren artean, zinta dantza, makil dantza eta arranzale dantza ikusteko parada egon zen.

Eguraldiari esker jende ugari bildu zen Lasarte-Oriako, Faltzes, Zangozta eta Oretetako taldeak ikusteko. Andatza plaza dantzaleku erraldoian bilakatu zen atzo.

### Dantzari guztiak dantzan

Emanaldiari amaiera emateko talde guztiak elkarrekin fandango, arin-arin eta kalejira dantzatu zuten. Dantzari Txikien egunari amaiera ederra eman zioten.

Berriro ere, urtero legez giro polita eta paregabea sortu zen herrian dantzari txikiei esker. Jende ugari gerturatu zen Andatza plazara talde hauen dantzak ikusteko. Zorionez aurten gainera eguraldia lagun izan zuten egun guztian zehar. •



Goian Ereintza taldea Sagardotegi kalean. Behean, arratsaldeko ekitaldiari hasiera emateko dantzatu duten Agurra.

